

Ia 18 kilometroko bide luzea da. Goizuetako udaldeko gainera ondoan hasi eta 900 metroko malda igoz Loitzateko gainera (1.048 m) iristen da. Udazkenean egiteko oso egokia da, baso nahiz landareen forma eta kolore ugariak ikusteko aukera ematen baitu.

Hasieran galtzada zahar batek Aitasemegi auzora eramango gaitu, bertan ibilbideak herri-bidearekin bat eginen du, eta handik Benaisoroko zelaira iritsiko gara. Hortik, bizkarra segituta, Zalkintza, Asunburu, Ariztxo eta Atakata pasa eta Enekolorriko soroko lepora (681 m) iritsiko gara, Deskargako Torrea (738 m) mendi kaskoa gure eskuinera utzita.

Bertan duela 2.600 urte inguruko zenbait mairu-baratze daude. Horietatik lau baso-bideak zeharkatzen ditu. Mairu-baratzeak zirkulu forma duten espazioak dira, tamaina ezberdinako harrien bitartez markatuak, eta erdian beste nonbait erretako gizaki baten errautsak gordetzen zituzten.



Hortik, zuzenean, Bilurtzikarko (808 m) tontorrera igoko gara. Bi mendi horiek markatzen dute, hain zuzen ere, Mendaurren hasita —Arantza eta Ituren arteko mugan— ekialdetik mendebaldera doan mendilerroaren mendebaldeko muga.

Belar ugariko bizkar hauetan mairu-baratze gehiago daude eta toki bikaina da Goizuetako hegoaldea ikusteko, baita Leitza, Ezkurra, Eratsun eta Labaiengo lurak ikusteko ere. Larre horietan 600 ardi, 60 behi eta 20 behor inguru bazkatzen dira ia urte osoan.


Leku horretatik aurrera bidea mendiaren bizkarra jarraituz egiten da, Arramaletako gaineraino (844m) iritsiz, Mendibilera gero (948m), eta ondoren Amonamotzeko atakatik igaroz. Egibeltzko errekanen sorburuaren inguruan ibiliko gara, uren banalerrotik oso bertan. Beste aldean Artikutza dago, gaur egun Donostia Udalaren jabetzapean. Iraingo Atakan gaudela, Loitzateko tontorrera iristeko, azkeneko aldapa igo besterik ez dugu egin behar.

Itzulia egiteko, etorritako bidetik Amonamotzeko atakaraino joan beharko dugu berriz eta, Mendibileko tontorra ezkerreko aldean utzita, Arramaletara joanen gara. Han Bordatxuriko bizkarra hartuko dugu, eta bertatik jaitsiz Kapelugorriko borda izandakoaren arrastoen ondotik pasako gara. Eskuin aldera Erroitzako arroa utziz, Espideko soroko gainera (491m) iritsiko gara.

Handik Gorosketa mendiko hegoaldea zeharkatuko dugu eta, Otxolonbordaraino (408 m). Berazkun auzoan gaude dagoeneko. Baso-pista batzuetatik jaitsiz Espide eta Maioberri baserrietara doan hormigoizko bidearekin bat eginen dugu eta, bertatik jarraituz, Magdalena baselizaren parera iristean, Goizuetako herrigunean egonen gara berriz.



luzera/longitud/longueur	desnivel/desnível/dénivelé	seinalak/marcas/balisage
18.300 m	890 m	
iraupena/duración/durée	zaitasuna/dificultad/difficulté	
5,5 h	handia/alta/haute	



Enekolorriko sororantz igoera/Subida hacia Enekolorriko soroa/Ascension vers Enekolorriko soroa



Illarbieta



Mairu-baratza Arramaletan/Cromlech en Arramaleta/Cromlech en Arramaleta

Ascension du mont Loitzate (1048 m) depuis la mairie de Goizueta, cette longue marche de montagne de plus de 18 km un d'un dénivelé de plus de 900 m est particulièrement agréable à l'automne, lorsque les forêts feuillues qu'elle traverse s'ornent d'une grande variété de couleurs.

Le début du parcours serpente le long d'une ancienne chaussée en direction du hameau d'Aitasemegi avant de rejoindre un chemin local par lequel on accède au replat de Benaisoro. Le chemin se poursuit ensuite le long de la crête, en passant par les parages de Zalkintza, Asun Buru, Aritzko et Ataka, jusqu'au Col d'Enekolorriko soroa (681 m) en laissant à droite le sommet de Deskargako Torrea (738w m).

Plusieurs Cromlechs (ou Harrespils), datés d'environ 2600 ans, sont présent sur ce col, quatre d'entre eux étant traversés par la piste forestière. Il s'agit de cercles de pierre au centre desquels étaient conservées les cendres d'un défunt.


Le chemin sort ensuite de la forêt, en direction du mont Bilurtzkar (808 m). Celui-ci marque la limite occidentale d'un cordon montagneux de sens est-ouest qui s'étend jusqu'au mont Mendaur, entre Arantz et Ituren et au long duquel on se trouvent de nombreux cromlechs. Depuis ces crêtes, vous pourrez profiter d'une vue dominante sur le sud de la Commune de Goizueta ainsi que sur ses voisines de Leitza, Eratsun et Labaien.

Les pâturages qui couvrent ces sommets hébergent durant une bonne partie de l'année quelques 600 brebis, 60 vaches et une vingtaine de chevaux.

Votre itinéraire se poursuit le long de la ligne de crêtes, franchissant les sommets d'Arramaleta (844m) et Mendibil (948m) jusqu'au col d'Amonamotzeko. À partir de ce point, le sentier s'engage sur les pentes de la tête de bassin versant de l'Egibeltzko erreka, et ne rejoint à nouveau la ligne de crête qu'au col d'Iraingo, juste avant la dernière ascension vers le mont Loitzate. Depuis ce col, vous découvrirez enfin une ample vue sur le domaine d'Artikutza, une forêt appartenant à la ville de San Sebastian, jusque là caché par les sommets de Belarsoro et Adartzipundi.

Le retour se fait par le chemin aller jusqu'au col d'Amonamotzeko où une bifurcation permet de contourner le sommet du mont Mendibil par la droite et de rejoindre directement l'Arramaleta. Depuis ce sommet, le chemin descend le long des pentes enherbées de Bordatzuri, d'où vous pourrez contempler la vallée de l'Erroita à votre droite et, à 1km de l'Arramaleta, les ruines de la Kapelugorriko borda en contrebas sur votre gauche.

Ces pentes vous mèneront jusqu'au col d'Espideko soroa (491m), d'où le sentier vous entraînera sur les pentes sud du mont Gorosketa en direction de l'Otxoloborda (408m), du hameau de Beraskun. À partir de ce point, une série de pistes forestières vous permettront de redescendre vers Goizueta en passant à proximité d'autres caserios (Espide et Maioberri). Le retour au village se fera par une piste bétonnée qui vous ramènera au niveau de l'ermita de La Magdalena.



- 1 Benaisoro
- 2 Portolon borda
- 3 Enekolorriko soroa
- 4 Bilurtzkar
- 5 Arramaleta
- 6 Mendibil
- 7 Loitzate
- 8 Espideko soroa
- 9 Otxolo borda



## GOIZUETAKO BIDE SAREA RED DE SENDEROS DE GOIZUETA RÉSEAU DE SENTIERS DE GOIZUETA



Goizuetako Udala  
Ayuntamiento de Goizueta  
Commune de Goizueta

Larga caminata montañera de algo más de 18 kilómetros que se inicia junto al Ayuntamiento de Goizueta y alcanza la cima de Loitzate (1048 m) superando 900 metros de desnivel. Muy recomendable para la otoñada por su variedad de formaciones vegetales y su riqueza cromática.

En su inicio recorre caracoleando una antigua calzada que se dirige al barrio Aitasemegi hasta tomar contacto con su camino vecinal y ascender después al rellano de Benaisoro. Desde este punto se encarama a la loma que recorriendo los parajes de Zalkintza, Asun buru, Aritzxo y Atakata alcanzando el collado de Enekolorriko soroa (681 m) y dejando a la derecha la cima de Deskargako Torrea (738 m).

En este lugar pueden apreciarse varios cromlechs que datan de hace unos 2 600 años, cuatro de los cuales están atravesados por la pista forestal. Se trata de espacios circulares delimitados por piedras de diversa dimensión que guardan en su centro parte de las cenizas de un individuo que fue incinerado en otro lugar.

Desde este punto remonta directamente a la despejada cima de Bilurtzkar (808 m). Estas dos cimas representan el límite occidental del cordal que con sentido este-oeste parte desde Mendaur, en los confines entre Arantz y Ituren.

Desde este cordal herboso donde encontramos más cromlechs se tiene una imponente vista del extremo sur del municipio así como de los vecinos Leitza,, Ezkurra, Eratsun y Labaien. Por estos pastizales se alimentan una buena parte del año unas 600 ovejas así como unas 60 vacas y una veintena de yeguas.A partir de este punto el sendero se desplaza por la cumbre alcanzado la cima de Aramaleta (844 m), Mendibil (948 m), pasando por Amonamotzeko ataka y recorriendo la cabecera de Egibeltzko erreka a poco desnivel respecto de la divisoria de aguas a cuyo otro lado se encuentra la finca de Artikutza, propiedad del Ayuntamiento de San Sebastián. Una vez en Iraingo ataka sólo queda remontar el último repecho hasta alcanzar el buzón del monte Loitzate.

Para el descenso desandamos lo andado hasta Amonamotzeko ataka dejando a la izquierda la cima de Mendibil para ir directamente a Arramaleta. Desde ésta tomamos la loma de Bordatzuri que en prolongado descenso pasa junto a las ruiñas de Kapelugorriko borda, dejando a la derecha la agreste cuenca de Erroita y finaliza en el collado de Espideko soroa (491 m).

Desde este punto seguiremos faldeando por la cara sur del monte Gorosketa hasta llegar a Otxoloborda (408 m), ya en el barrio de Beraskun. Tomando una serie de pistas forestales seguiremos en descenso hasta llegar a la pista hormigonada que sirve de acceso a los caseríos de Espide y Maioberri para, sin abandonarla, alcanzar el casco urbano de Goizueta a la altura de la ermita de La Magdalena.